

ERAKUNDE ADIERAZPENA, EKAINAREN 28AN 2016KO LGTB HARROTASUNAREN EGUNA IZANGO DELA ETA

1969ko ekainaren 28a data historikotzat hartzen da gay, lesbiana, transexual eta bisexualen askapeneko mugimendurako. New Yorkeko Stonewall pubean, transexual, transgenero, lesbiana eta gayen talde bat matxinatu egin zen, poliziak gizatalde horien aurka egiten zituen abusuen aurka, eta horrela beren eskubideak aldarrikatu zituzten. Hainbat egunez, ezkutatuta eta beldurrez bizi ohi ziren pertsona horiek kalera atera ziren, beren nortasunaz, itxuraz eta harremanez lotsatzen ez zirela aldarrikatzera.

Duela hamaika urte, 2005ean, Berdintasunezko Ezkontzaren Legea delakoa onartu zen; eta 2007an, Genero Nortasunaren Legea. Horrela burutu zen lesbiana, gay, transexual eta bisexualen legezko berdintasuna bilatzeko borrokaren etapa bat. Alaitasun handiko urteak izan ziren, Espainian legezko bereizkeria amaitzea eta LGTB gizatalde osoaren duintasuna onartzea ekarri baitzuten.

Orain egiaztatu da askok orduan susmatzen zutena, hots, berdintasun formala edo legala lortzeak ez dakarrela benetako berdintasuna. Herritar guztien duintasuna ezin da bereizi beren bizitzako arlo guztietan jarduteko duten askatasunetik. Horretarako, beharrezkoa da askotariko hainbat gairi heltzea.

Alde batetik, beharrezkoa da egungo corpus juridikoa indartzea, transexualen gizataldearen beharren arazoari soilik osasuneko ez den ikuspegi batetik helduko dien legedi osagarriarekin. Beste alde batetik, komeni litzateke lesbiana, gay, transexual eta bisexualen aurkako gorroto eta bereizkeriazko delituen kontrako babes integraleko neurri eraginkorrek ziurtatzea, askotariko arloetan: lana, salerosketa, kontratuak eta abar.

Hezkuntza arloa da premiazko beste lehentasun bat. Eskola jazarpen homofoboa, bifobikoa edo transfobikoa konpondu gabeko arazoa da, eta hainbat eremutatik heldu behar zaio. Aipatzekoa da, besteak beste, curriculum akademikoan sartu behar direla gizarte demokratiko baterako eta haurren nortasuna libre garatzeko funtsezkoak diren balioak.



Ez dezagun ahatz munduko herrialde askotan oraindik ere lesbiana, gay, bisexual edo transexual izateak edo horren itxura izateak berak ere jazarpen soziala eta penala dakarrela, eta herritarrei bititza galtzea ere ekar diezaikeela. Egun, iheslariak mintzagai ditugularik, beren nortasun sexualak eraginda jazarriak direlako iheslari izatearen aukera ez dago jasota ezein protokolotan edo harrera prozeduratan, eta horrek ez luke horrela izan behar. Munduan 70 herrialde baino gehiago dira homosexualtasuna kartzelarekin edo are heriotzarekin zigortzen dutenak. Aipatzekoak dira, bereziki, politikaren ikuspegi erlijiosoan inposatzen duten herrialdeak, edota demokratikoak ez diren gobernu sistemak dituztenak.

Ikusezintasun handiago batek jarrera argiro homofoboan alde jokatzeko duen arloetako bat kirola da. Kirola, eta ez profesionala soilik, egungo gure gizartearen aisialdiaren alderdi bat dira, eta hura gabe ez da ulertzen gure egungo bititza. Hala ere, nahiz eta bititza publikoko hainbat arlotan aurrerapen ugari egin diren, kirolak gune beltz bat izaten jarraitzen du. Hala erakusten dute beren LGTB sexu nortasuna argitara ateratzea erabaki duten kirolari urriek nozitu dituzten eraso homofobo ugariak.

Horregatik guztiarengatik onartzen du Donostiako Udalbatzak ondorengo

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Donostiako Udalbatzak bere arbuioa agertzen die sexu eta genero nortasunen kontrako aurreiritzi eta erasoei.
2. Donostiako Udalbatzak aldarrikatzen du pertsona orok duela bere sexu, genero eta afektibitate askatasunerako eskubidea eta berdintasunez bere harremanak aukeratuz bere nortasuna definitzeko eskubidea.
3. Donostiako Udalbatzak bere gain hartzen du homofobia, lesfobia eta transfobiaren aurka informatzeko eta sentiberatzeko kanpainak egiteko ardura, hiriko LGTB gizataldeekin lankidetzan, donostiarren artean kontzientzia sortzearen, jarrera alda dadin eta errespetua eta tolerantzia susta daitezen.
4. Donostiako Udalbatzak, bere eskumenen eremuan, ikastetxeak beharrezko tresnez hornitzea bultzatuko du, ikastetxe horiek jarrera homofobo, lesfobo eta transfoboan aurkako borrokan dituzten beharrak behatzeko eta horrelako bereizkeria nozitzen ari diren ikasleei laguntza eta sostengua ematea sustatzeko.
5. Donostiako Udalbatzak osasun agintariei helaraziko die beharrezkoa dela gay, lesbiana, bisexual, transgenero nahiz transexualak modu integralean artatzea (sexu transmisiozko infekzioak, arreta psikologikoa, generoa berriz esleitzea, eta abar) Euskadiko osasun sistema publikoan.

6. Donostiako Udalbatzak Europako eta Espainiako agintariei helaraziko die bere kezka, fundamentalismo erlijiosoak bere legea ezartzen duen herrialdeetan edota gobernu autoritarioek bereizkeria sustatzen duten herrialdeetan gay, lesbiana, transexual eta bisexualek nozitzen duten egoera dela eta. Era berean, agintari horiei hertsatuki eskatzen die kontuan har dezatela alderdi hori, LGTB gizon eta emakumeek egindako iheslari eskaeretan.
7. Donostiako Udalbatzak hiriko kirol klubuen artean sustatuko du Ortzadar Liga kanpainarekin bat egin dezatela, eta bere kirol ekitaldietara zabalduko du, horrela arian-arian ezabatzearen bai LGTB gizon eta emakumeen ikusezintasuna, bai gizon eta emakume horiek nozitzen dituzten bereizkeria egoerak.

Donostia, 2016ko ekainaren 10a

Miren Azkarate Villar
EAJ/PNV

Ernesto Gasco Gonzalo
PSE-EE

Miren Amaia Almirall López de Luzuriaga
EH BILDU

Miren Albistur Garmendia
PP

Amaia Martin Garin
IRABAZI DONOSTIA